

INGURUMEN HEZIKETARAKO MUSEOA JASANGARRITASUNAREN ESKOLA


UDABERRIA 2021







T. 948 14 98 04 / 948 42 09 84

www.educacionambiental.pamplona.es/eu
museoambiental@pamplona.es

 [ingurumenhezkuntza.museoa](https://www.facebook.com/ingurumenhezkuntza.museoa)

 [IHMuseoalruna](https://twitter.com/IHMuseoalruna)

 [ingurumenhezkuntzairuna](https://www.instagram.com/ingurumenhezkuntzairuna)

Goizez, asteartetik ostiralera. 10.00-13.00
Arratsaldez, asteartetik ostegunera. 18.00-20.00

UDAKO ORDUTEGIA

Ekainaren 15etik aurrera, Ingurumen Hezikuntzako Museoa goizez bakarrik dago zabalik, asteartetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara.

Errotazarko k., z.g. - 31014 Iruña

INGURUMEN-KRISIARI AURRE EGITEKO PROPOSAMENAK

Udaberrian bizitza esnatzen dela nabaritzen dugu inoiz baino gehiago. Agian horregatik, lurrarekiko eta bizitzarekiko lotura bizien sentitzen den urtaroa da.

Jasangarritasun Eskolaren programazioaren bidez zuen zentzumen guztiak aktibatzen gonbidatzen zaituztegu, "Ama Lurrak beti irudikatzen du bizitza" erakusketaz eta gure ingurune hurbila ezagutzera ateraldiak egiteko proposamenaz baliatuta.

Egungo ingurumen-erronketako batzuk eta hurbileko alternatibak ezagutzeko aukera ere egonen da.

Jarduera guztiak osasun-arauekin bat eginen dira.

Gure baliabideak (webgunea, sare sozialak, buletin elektronikoa) erabiltzea gomendatzen dizuegu, gerta daitezkeen aldaketen berri izateko.

Jarduera guztiak doan dira parte-hartzaileentzat, baina diru publikoaren gastua eragiten dute.

Mesedez, egiaztatu libre zaudetela izena eman baino lehen. Izan ere, bajek eragiten ahal dute itxarotzez-zerrendan daudenek ezin izatea hutsik geratutako lekuak bete.

Aurkibidea

Hitzaldi-solasaldiak	7-8	Piribus	34-35
Lantegiak, ikastaroak eta txangoak	9-16	Erakusketak	36-37
Haurrendako lantegiak Aste Santuan	17	Merkatu txikia	38
Iruña berdea da	18-32	Museoa zeureganatu	39
Ecozine	33		

Apirila

Al	As.	Az.	Og.	OI.	Lr.	Ig.
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
	Urtaroko lantegiak EUSK.	Urtaroko lantegiak EUSK.	Urtaroko lantegiak GAZT.	Urtaroko lantegiak GAZT.		
12	13	14	15	16	17	18
	Ikastaroa: basalandare hartzitutako kosmetika	Klima-ekintzarako lantaldea	Konpondu zure bizikleta - Bizibokoa			
	Erakusketaren inaugurazioa	*Nola eragiten dio klima-aldaketak zure auzoari?	Erak.	Erak.		
	Erak.	Erak.				
19	20	21	22	23	24	25
	Ikastaroa: basalandare hartzitutako kosmetika		Ikastaroa: basalandare hartzitutako kosmetika	*Lantegia: Nola jarri martxan baratze bat?		
	Erak.	Erak.	*Nola eragiten dio klima-aldaketak zure auzoari?	Erak.		
			Erak.			
26	27	28	29	30		
	Dirurik gabeko truke-azoka txikia	Dirurik gabeko truke-azoka txikia	Dirurik gabeko truke-azoka txikia	Dirurik gabeko truke-azoka txikia		
		*Familiarteko lantegia: urtebetetze osasungarriak nire gonbidatuentzat eta planetarentzat GAZT.				
	*Nola eragiten dio klima-aldaketak zure auzoari?	*Nola eragiten dio klima-aldaketak zure auzoari?	*Familiarteko lantegia: urtebetetze osasungarriak nire gonbidatuentzat eta planetarentzat EUSK.	*Lantegia: Nola jarri martxan baratze bat?		
	Erak.	Erak.	Erak.	Erak.		

Erak. Itsaso Txikia. Prozesuen argazkiak egiten. Apirilak 13 - 30

M. Dirurik gabeko truke-azoka txikia *Jarduera hau EZ da Museoaan egiten. Barruan kontsultatu

Maiatza

Al	As.	Az.	Og.	OI.	Lr.	Ig.
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
	Erakusketaren aurkezpena	Energia berriztagarrien gaineko tokiko herritar-esperientziak	Konpondu zure bizikleta - Bizi-bxokoa	*Baratze-lantegia: Hobe neurriak hartzea, sendatzea baino.		
	Familiarteko ipuin kontalaria: Berdetako istorioak GAZT.		*Ateraldia: Kastoreak Iruñean			
	Erak.	Erak.	Erak.	Erak.		
10	11	12	13	14	15	16
	*Nola eragiten dio klima-aldaketak zure auzoari?	Klima-ekintzarako lantaldea	Lantegia: Natura sentitu			
	*Iruñeko biodibertsitatea, zer fauna eta zer flora bizi dira elkarrekin gure inguruan?	*Familiarteko ateraldia: Hiriko ingurune naturala eta basozainak GAZT.	*Nola eragiten dio klima-aldaketak zure auzoari?	*Baratze-lantegia: gure hazi propioak lortzea		
Pir	Erak. Pir	Erak.	Erak.	Erak. Pir	Pir	Pir
17	18	19	20	21	22	23
	Dirurik gabeko truke-azoka bikia	Dirurik gabeko truke-azoka bikia				
		Familiarteko ipuin kontalaria: Berdetako istorioak GAZT.	Dirurik gabeko truke-azoka bikia	Dirurik gabeko truke-azoka bikia	*Argazkigintza eta konposizioa	
	*Ateraldia: Media Luna	*Nola eragiten dio klima-aldaketak zure auzoari?				
Pir	Erak. Pir	Erak. Pir	Erak. Pir	Erak. Pir	Pir	Pir
24	25	26	27	28	29	30
*ECOZINE	*ECOZINE	*ECOZINE	*ECOZINE		*Gimnasia atari zabalean	
	Sendabalarrei buruzko lantegia					
	Erak.	Erak.	Erak.	Erak.		

Erak. Ama Lurrak beti bizitza isladatzen du. Maiatzak 4 - ekainak 25

Pir. Piribus.

*Jarduera hau EZ da Museoa egiten. Barruan kontsultatu

Ekaina

Al	As.	Az.	Og.	Ol.	Lr.	Ig.
	1 *Ateraldia: Yamaguchi Erak.	2 Erak.	3 Erak.	4 Erak.	5 *Argazkia loreekin eta naturarekin	6
7	8 *Ateraldia: Ziudadela Erak.	9 Erak.	10 Konpondu zure bizikleta - Bizi- bokoa Erak.	11 Erak.	12 *Gimnasia atari zabalean	13
14	15 Erak.	16 *Ibilaldi geologikoa Erak.	17 *Familiarteko ipuin kontalaria: Berdetako istorioak GAZT. Erak.	18 Erak.	19 *Rally-a Taconeran zehar	20
21	22 Erak.	23 Erak.	24 Erak.	25 Erak.	26	27
28	29	30				

Erak. Ama Lurrak beti bizitza isladatzen du. Maiatzak 4 - ekainak 25

*Jarduera hau EZ da Museoaan egiten. Barruan kontsultatu

NOLA ERAGITEN DIO KLIMA-ALDAKETAK NIRE AUZOARI?



Javier Zardoya Illana eta Marta Torres Gonzáles

Milagosako Civivoxa: apirilak 14, asteazkena, 19,00

Mendillorriko Civivoxa: apirilak 22, osteguna, 19,00

Ingurumen Hezkuntzako Museoa: apirilak 27, asteartea, 19,00

Sanduzelaiko Civivoxa: apirilak 28, asteazkena, 19,00

Iturramako Civivoxa: maiatzak 11, asteartea, 19,00

Caldereriako aretoa: maiatzak 13, 19,00h.

Zabalguneko Civivoxa: maiatzak 19, asteazkena, 19,00

Hitzaldi hauetan, klima aldaketak auzo bakoitzari nola eragiten dion ezagutuko dugu. Bestetik berotegi efektuko gasen isuria murrizteko aurreikusiak dauden ekintzak eta aldaketei egokitzeko ekintzak aditzera emanen dira.

Javier Zardoya Illana, Iruñeko Udaleko Energia Agentzia
Marta Torres Gonzáles, Iruñeko Udaleko Tokiko Agenda 21eko zerbitzua

Izen-ematea, aurrez

Martxoaren 29tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

MAHAI-INGURUA: ENERGIA BERRIZTAGARRIAK GARATZEKO TOKIKO HERRITAR-ESPERIENTZIAK



Juanjo Salamero, Rafael Pastor de Luis eta Fermín Gil
Moderatzailea: **Javier Zardoya Illana**

Maiatzak 5, asteazkena, 19.00

TOKIA: Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Deskarbonizazioa lehentasunezko helburua da hamarkada honetarako eta hurrengorako. Horretarako, ezinbestekoa da ekimen publiko, pribatu eta herritarren ekimenen arteko sinergia, hala indibidual nola kolektiboa.

Mahai-inguru honetan herritarren kolektiboen partaidetza duten tokiko energia berriztagarriak garatzeko hiru ekimenen berri emanen da.

- **Juanjo Salamero**, Gares energiako kide da
- **Rafael Pastor de Luis Sadar**, energia berriztagarriko herritar-komunitateko kide da
- **Fermín Gil**, Iruñeko autokontsumo partekatuko lehen instalazioko kide da
- **Javier Zardoya Illana**, Iruñeko Udalaren Energia Agentzia

Izen-ematea, aurrez

Apirilaren 19tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

IKASTAROA: BASALANDAREZ HARTZITUTAKO KOSMETIKA

Ateraldi eta lantegi guztiak doan dira. 16 urtetik gorakoendako dira, eta aurrez eman behar da izena.



Andrea Martín

1. saioa: apirilak 13, asteartea, 18.00 - 20.00

2. saioa: apirilak 20, asteartea, 18.00 - 20.00

3. saioa: apirilak 22, osteguna, 18.00 - 20.00

TOKIA: Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Ikastaro honetan gure kosmetiko natural hartzitua egingen ditugu. Horretarako, saio bakoitzean ateraldi motz bat egingen da, basalandareak identifikatzeko, eta ondoren saio horretako prestakinean erabiliko dira.

- **1. saioa:** Aurpegirako serum nutritiboa
- **2. saioa:** Gorputzerako lozio hartzitua
- **3. saioa:** Desodorante likido hartzitua

Andrea Martín basalandareak hartzitzen aditua da eta "Los fermentos del bosque: guía básica para fermentar plantas silvestres" liburuaren egilea.

Izen-ematea, aurrez

Martxoaren 29tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

KLIMA-EKINTZARAKO LANTALDEA



Iruñeko Udaleko Ingurumen Hezkuntzako lantaldea

Urritik maiatzera, hilabete bakoitzeko asteazken batean. 18.00 - 20.00.

Apirilak 14, asteazkena

Maiatzak 12, asteazkena

TOKIA: Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Trantsizio ekologikoa erronka saihetsezina da. Gero eta argiago dugu. Alabaina, batzuetan ez dakigu nondik hasi.

Prozesu honek ahalduntze-hazi bat izan nahi du, jakin dezagun nola izan partaide klima-aldaketaren arazoari irtenbidea emateko. Horretarako zenbait ekintza jakin eginen dira, energia, kontsumo, elikadura, aisialdi eta abarrez.

BIZITXOKOA - KONPONDU ZURE BIZIKLETA



Juanjo Iriarte, konponketetan aditua

Ostegunetan: Apirilaren 15ean, maiatzaren 6an eta ekainaren 10ean,

18:00etatik 20.00etara.

TOKIA: Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Bizikleten konponketari buruzko ezagutzak partekatzeko eta gure bizikleta doitzen dugun bitartean edo besteei laguntzen diegun bitartean ongi pasatzeko sortu da gune hau. Horretarako, konponketetan aditua den Juanjo Iriarte izanen da bertan, eta Bizitxokora doazen lagunei laguntza eta aholkuak emanen dizkie.

Izen-ematea, aurrez

Egun hauetatik aurrera: Apirilaren 6a (apirilerako), apirilaren 19a (maiatzerako), maiatzaren 24a (ekainerako).

010 edo 948 42 01 00 (Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

LANTEGI PRAKTIKOA: NOLA JARRI MARTXAN BARATZE BAT



Tania Gómez Rodrigo

1. saioa: apirilak 23, ostirala, 16.30 – 20.00.

2. saioa: apirilak 30, ostirala, 16.30 – 20.00.

TOKIA: Udalaren Etxabakoitzeko aisialdi-baratzeak

Topalekua: Etxabakoitzeko Liburutegi Publikoa

Bi saio praktikoren eta baratze bat landatzeko prestaketa-lanen bidez, zenbait ezagutza teoriko eta oinarrizko teknika helaraziko dira baratze ekologikoak abiatu eta mantentzeko, metodologia partizipatiboa erabiliz: lur-prestaketa, lurra maneiatzea, landaketak eta baratze-lanak diseinatu eta planifikatzea, eta abar.

Tania Gómez Rodrigo Nekazaritzako ingeniari teknikoa da, eta Arrea elkarte agroekologikoko kidea.

Izen-ematea, aurrez

Apirilaren 6tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

FAMILIARTEKO LANTEGIA: URTEBETETZE OSASUNTSUGARRIAK GONBIDATUENTZAT ETA PLANETARENTZAT



M^a Mar Ramos, prestakuntza maite duen sukaldaria

Apirilak 28, asteazkena, 17.30 - 19.00

HIZKUNTZA: Gaztelera

ADINA: 4 eta 10 urte bitartekoentzat (helduek lagunduta)

TOKIA: Gurbindo Etxea

Familiarteko lantegi honetan urtebetetzeak ospatzeko askari osasungarriak prestatzen ikasiko dute. Horretarako elikagai ekologikoak eta hurbilekoak erabiliko dituzte, frutak, barazkiak, fruitu lehorrak, osoko zerealak, prozesatu gabeko proteina gihartsuak, gantz osasungarriak, osoko esnekiak eta begetalezko alternatibak uztartuta.

Honako hauek prestatzen ikasiko dute: barazki-salpikioia fruitu lehorrekin eta eztizko ozpin-olioarekin, azalore-pizza, hodei-ogia indioilarrarekin eta marrubi-broxetak txokolatearekin.

Izen-ematea, aurrez

Apirilaren 12tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

FAMILIARTEKO LANTEGIA: URTEBETETZE OSASUNTSUGARRIAK GONBIDATUENTZAT ETA PLANETARENTZAT



Dogartzi Perez, sukaldaria

Apirilak 29, osteguna, 17.30 - 19.00

HIZKUNTZA: Euskara

ADINA: 4 eta 10 urte bitartekoentzat (helduek lagunduta)

TOKIA: Gurbindo Etxea

Familiarteko lantegi honetan urtebetetzeak ospatzeko askari osasungarriak prestatzen ikasiko dute. Horretarako elikagai ekologikoak eta hurbilekoak erabiliko dituzte, frutak, barazkiak, fruitu lehorrak, osoko zerealak, prozesatu gabeko proteina gihartsuak, gantz osasungarriak, osoko esnekiak eta begetalezko alternatibak uztertuta.

Izen-ematea, aurrez

Apirilaren 12tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

HOBE NEURRIAK HARTZEA, SENDATZEA BAINO... IZURRITE ETA GAIXOTASUNEN PREBENTZIOA BARATZE EKOLOGIKOAN



Tania Gómez Rodrigo

Maiatzak 7, ostirala, 16.30 – 20.00.

Udalaren Etxabakoitzeko aisialdi-baratzeak

Topalekua: Etxabakoitzeko Liburutegi Publikoa

Lantegi teoriko-praktiko honetan prebentzioak baratze osasuntsu bat mantentzeko duen garrantzia aztertuko da: nekazaritza-ekosistemaren diseinutik hasi eta laboreen osasuna bultzatzeko laborantza-teknika egokietaraino, zer praktika saihestu behar ditugun aztertuta.

Zenbait tratamendu erraz ezagutu eta prestatuko dira, prebenitzeko eta sendatzeko.

Tania Gómez Rodrigo Nekazaritzako ingeniari teknikoa da, eta Arrea elkarte agroekologikoko kidea.

Izen-ematea, aurrez

Apirilaren 26tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

BARATZE-LANTEGIA: GURE HAZI PROPIOAK LORTZEA



Tania Gómez Rodrigo

Maiatzak 14, ostirala, 16.30 – 20.00.

TOKIA: Udalaren Etxabakoitzeko aisialdi-baratzeak

Topalekua: Etxabakoitzeko Liburutegi Publikoa

Hitzaldi-lantegi lantegi praktikoa geure haziak ugaltzeari eta kontserbatzeari buruz.

Tokiko barietateen garrantziaz eta haziak lortzeko orduan kontuan hartu beharreko alderdiez hitz egingen dugu: laboreen plangintza, ugalketa-baratzearen diseinua eta kontserbazioa.

Tania Gómez Rodrigo Nekazaritzako ingeniari teknikoa da, eta Arrea elkarte agroekologikoko kidea.

Izen-ematea, aurrez

Apirilaren 26tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

HAURRENDAKO LANTEGIAK ASTE SANTUAN



Sortu zeure lurrina

Apirilak 6, asteartea. 10.30 - 12.30 (euskaraz)

Apirilak 8, osteguna. 10.30 - 12.30 (gaztelaniaz)

Sortu zeure poltsa

Apirilak 7, asteazkena. 10.30 - 12.30 (euskaraz)

Apirilak 9, ostirala. 10.30 - 12.30 (gaztelaniaz)

TOKIA: Ingurumen Hezkuntzako Museoa

ADINA: 6 - 12 urte bitarte

Lurrina sortzeko lantegia gure inguruneko landare usaintsuak erabilia egingen da. Bertan, landareen propietateak eta ezaugarriak ezagutuko dira.

Oihalezko poltsak egiteko lantegia kamiseta zaharrak berrerabiliz egingen da, zeinei bizi berri bat emanen baitzaie. Lantegian zehar, hondakinak kudeatzean murrizketak eta berrerabilpenak duten garrantzia azpimarratuko da, lehentasunezko aukera gisa.

Izen-ematea, aurrez

Martxoaren 22tik aitzina. 010 edo 948 42 01 00 (Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

IRUÑA BERDEA DA: UDABERRIA

FAMILIARTEKO IPUIN KONTALARIA: BERDETAKO ISTORIOAK

“Iruña berdea da” Iruñeko Udaleko Ingurumen Hezkuntza, Kultura eta Turismo Zerbitzuen arteko elkarlanean antolatutako programa da



Sergio de Andrés

Maiatzak 4, asteartea 18.00: San Bartolome Gotorlekua (Media Luna)

Ekainak 17, asteartea 18.00: (Ziudadelarako sarrera; Armada Etorbidea)

PUBLIKOA: familiarra

Hizkuntza: Gaztelera

Ba al dakizue non gauden? Zer gertatu zen hemen zehazki? Ez kezkatu, nik kontatuko dizuet. Aire zabalean eta historiaz inguratuta, gure “berdetako istorioekin”.

Izen-ematea, aurrez

Apirilaren 19tik aurrera (maiatzerako) eta maiatzaren 31tik aurrera (ekainerako). 010 edo 948 42 01 00 (Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

IRTEERA: KASTOREAK IRUÑEAN



Franciso Javier Fabo Induráin

Maiatzak 6, osteguna, 19.00 - 21.00

TOKIA: Magdalenako zubia

Zenbait mendez kanpoan egon ondoren, kastorea itzuli egin da, eta berea dena erreklamatzera etorri da: Arga ibaia.

Nola interpretatzen da ibai gizatiartu bat kastore baten ikuspegitik?

Ateraldi honetan, kastorearen portaera ulertzen saiatuko gara, non eta harentzat aldatua dagoen eta arrotza den ingurune batean eta bizirautea helburu bakartzat hartuta.

Franciso Javier Fabo ingurumen-aktibista da, eta Asociación Naturalista Marcillela ALNUS elkarteko kide.

Izen-ematea, aurrez

Apirilaren 19tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

FAMILIARTEKO ATERALDIA: HIRIKO INGURUNE NATURALA ETA BASOZAINAK



Nafarroako Gobernuko Basozainak eta ingurumen-kudeaketaren kalitatea

Gobierno de Navarra
Departamento de Desarrollo Rural
y Medio Ambiente



Nafarroako Gobernua
Landa Garapeneko eta
Ingurumeneko Departamentua

Gaztelaniaz: Maiatzak 12, asteazkena, 17.30 - 19.00

Euskaraz: Maiatzak 19, asteazkena, 17.30 - 19.00

TOKIA: Miluzeko zubia (Sanduzelai)

Ateraldi honetan ibaiaren ingurumen-balioak gozatu eta ezagutuko dira, hiria Iruñeko hiri-ingurune naturala baita. Horrez gain, ingurumen naturalaren kudeaketa jasangarrian, zaintzan eta ikerketan espezializatutako basozainen zereginak eta eskumenak ezagutuko dira.

Izen-ematea, aurrez

Apirilaren 26tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

NATURA SENTITZEA: SORTU ETA SENTITU ARTEAREN BIDEZ (HELDUENDAKO)



Ana Rosa Sanchez

Maiatzak 13, osteguna, 18.00 – 20.00.

TOKIA: Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Lantegi esperimentalak, sormen-gaitasunen bitartez ingurune naturalarekin harremanetan jartzeko. Ibilbidea gure naturan barna, nahi duguna adierazi eta ongizate- zein osasun guneak bilatzeko.

Hazi eta agertzen den horrekin harremanetan jartzea arte-proposamenen bidez: kolorea, trazua eta aztarna.

Ana Rosa Sánchez Arte Ederretan lizentziaduna da, arteterapeuta, arte-hezitzailea eta giza-ikuspegiko hezkuntza-proiektuen sortzailea.

Izen-ematea, aurrez

Apirilaren 26tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

ATERALDIA MEDIA LUNA PARKERA



Gabi Berasategi (Ornitolan SL)

Maiatzak 18, asteartea, 18.00 – 20.00.

TOKIA: Media Luna parkea

Topagunea: Media Lunako kafetegia

Hiria, bere kaleak, zuhaitzak eta parkeak batzuetan ezezaguna den eguneroko biodibertsitate baten etxe dira. Interpretazio-ibilbide baten bidez, hurbilpen bat eginen dugu Taconerako fauna eta flora ezagutzeko, baita bertako espezieak, tokiak eta ezaugarriak ere.

Gabi Berasategui biologoa da, eta eskarmentu handia du Nafarroako biodibertsitatea ikertzen eta hedatzen.

Inscripción previa

Maiatzaren 3tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

ARGAZKIGINTZA ETA KONPOSIZIOA (ARGIEKIN ETA FORMEKIN JOLASEAN)



José Luis Pujol/Roberto Villamayor

Maiatzak 22, larunbata 10.00-12.00

Ziudadela

Topagunea: Ziuadelako sarrera (Armada etorbidea)

Argien eta itzalen konposizioa Iruñeko Ziuadelako ingurune naturalean, argazkigintzako konposizioen oinarritzko arauz gozatuko dugu argazki batzuk eginez. Reflex kamera edo antzekoa gomendatzen da.

Izen-ematea, aurrez

Maiatzaren 3tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

LANTEGIA: INGURUKO SENDABELARRAK



Joxean Vidaurre

Maiatzak 25, asteartea, 10.30 - 12.30.

TOKIA: Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Lantegi honetan txango labur bat egingen da inguruetara, gertuko ingurumarietan aurki ditzakegun landareak ezagutzeko. Gero, ikasgelara itzultitakoan, horien ezaugarri sendagarriak eta erabilera terapeutikoak hartuko dira hizpide, eta zalantza guztiei erantzunen zaie.

Josean Vidaurre nutrizionista eta fitoterapian aditua da.

Izen-ematea, aurrez

Maiatzaren 10etik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

GIMNASIA ATARI ZABALEAN, HIRI-GIMNASIOAK ETA INGURUNEA KONBINATUZ



Amaya Saralegui

Maiatzak 29 eta ekainak 12, larunbatak 10.30-12.30

TOKIA:

Maiatzak 29: Iruñeko Orfeoiaren parkea, Milagrosa

Topagunea: Iruñeko Orfeoiaren parkeko iturria

Ekainak 12: Mendillorriko lakua

Topagunea: Mendillorriko Civivoxa

Atari zabaleko aztura osasungarrien bidez zahartze aktiboa sustatuz hiriko berdeguneetan!

Zatoz eta sortu ariketa-errutina bat eta ikas ezazu gorputzaren atal desberdinak mugitzen, gimnasioez eta hiri-altzariez gozatu bitartean, gidatutako eta zaindutako taldean.

Izen-ematea, aurrez

Maiatzaren 10etik aurrera (maiatzerako) eta maiatzaren 26tik aurrera (ekainerako).
010 edo 948 42 01 00 (Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

ATERALDIA YAMAGUCHI PARKERA: ESNE BIDEA LORATEGI BATEAN



MSM

Ekainak 1, asteartea. 18.00 – 20.00

TOKIA: Yamaguchi parkea

Topagunea: Planetarioko atea

Proposamena Yamaguchi parkean barna paseatzea da, haren historia ezagutzeko. Jatorri, diseinu eta eraikuntzatik hasi eta gaur eguneraino. Egun, parkeak esne bidea barne hartzen du "BAKARRIK" 30 metro luze duen lorategi batean irudikatuta.

Izarrarteko bidaia proposatzen da, non lorategiko landareek gure tokian jartzeko balio baitute, bai eta azaltzeko ere zeinen txikiak garen unibertso handi-handiarekin alderatuta.

MSM enpresak egin zuen Galaxiaren lorategiaren joko-interaktiboa Iruñeko Udalarentzat Yamaguchi parkean, 2018an.

Izen-ematea, aurrez

Maiatzaren 17tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

ARGAZKIA LOREEKIN



José Luis Pujol eta Roberto Villamayor

Ekainak 5, larunbata 10.00-12.00

TOKIA: Mendillorriko Biltegien pasealekua

Topalekua: Biltegiatarako sarrera

Argazkiak Mendillorriko ingurune naturalean, argazkigintzarako argia, makro argazkigintza eta fokuratze selektiboa ikusiz eta ulertuz, eta hirian argazkigintza eta naturaz gozatuz. Reflex kamera edo antzekoa eta argazkigintzaren inguruko ezagutzaren bat izatea gomendatzen da.

Izen-ematea, aurrez

Maiatzaren 19tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

NATURA-ATERALDIA ZIUDADELAKO PARKERA



Gabi Berasategi (Ornitolan SL)

Ekainak 8, asteartea. 18.00 - 20.00

TOKIA: Ziuadela eta Gaztelugibel.

Topagunea: Ziuadelako sarrera (Armada etorbidea)

Ibilbidea Gaztelugibel eta Iruñeko Ziuadelan barna, biodibertsitate handia duten Iruñeko parke horietako flora- eta fauna-aberastasuna ezagutze aldera.

Gabi Berasategi biologoa da, eta eskarmentu handia du Nafarroako biodibertsitatea ikertzen eta hedatzen.

Izen-ematea, aurrez

Maiatzaren 24tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

IBILALDI GEOLOGIKOA IRUÑEKO IBAI PASEALEKUAN BARNA



Fran Sanz Morales

Ekainak 16, asteazkena. 18.00 – 20.00

TOKIA: Iruñeko Ibai Parkea

Topalekua: Burlata eta Iruña arteko muga markatzen duen zubi zaharra

Landa-irteera honetan gure ingurune hurbilenenaren jatorria ulertuko dugu, nola osatu den horren paisaia aberats eta askotarikoa, eta zeintzuk diren aurki ditzakegun aztarnak gure hiriaren historia geologikoa “irakurtzeko”, zeinak Arga ibaiaren eta haren isurkideen dinamika ardatz baititu.

Fran Sanz Morales Nafarroako geologo bat da, egun Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea.

Izen-ematea, aurrez

Maiatzaren 31tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

RALLY-a TACONERAN ZEHAR



Adolfo Lacunza

Ekainak 19, larunbata 10.00-12.00

TOKIA: Taconerako lorategiak

Topagunea: Sarrera nagusia Navas de Tolosatik

Rallya (oso fotografikoa) Taconerako espazioari mugatua.

“Mandatu txiki” batzuen bitartez, saiatuko gara begirada gure kameren bidez pixka bat gehiago garatzen.

Izen-ematea, aurrez

Maiatzaren 31tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

IRUÑA BERDEA DA ERRONKA PARTE-HARTZAILEA. 2021EKO UDABERRIA



ANIMATU ETA PARTE HARTU ERRONKA HONETAN!

Hasiera-data: 2021eko maiatzak 3




Amaiera-data: 2021eko ekainak 20

PUBLIKOA: 16 urtetik gorakoak

- **Prozedura:** Parte hartu nahi dutenek beren argazkiak participacion@redcivivox.es helbidera bidali behar dituzte, gaian “argazki berdea” adieraziz.
- **Argazkiaren betekizunak:**
 - Gehienez ere bi argazki onartuko dira parte-hartzaile bakoitzeko, argitaratu gabeak eta beste inongo lehiaketetan erabilitakoak.
 - Irudiaren edo argazkiaren formatuak .jpg izan behar du.
 - Fitxategiaren izenak argazkiaren izenordea eta izenburua izan behar ditu. Adibidea: izenordea_argazkiaren izenburua.jpg
- **Bete beharreko datuak:** Argazkiarekin batera ondoko datuak eman beharko dira:
 - Parte hartzailearen izen-abizenak eta adina
 - Helbide elektronikoa
 - Argazkiaren izenburua
 - Argazkia egin den lekua
 - Erantsiko da edukia lagatzeko baimena, egin daitekeen hedapenerako. Horretarako, idatziezaguzu participacion@redcivivox.es helbidera mezuaren gaian “baimena” adieraziz eta zure emailera bidaliko dizugu.
- **Parte-hartzaileak:** Adierazi irudiaren egile gisa identifikatuta agertu nahi duzu.
- **Sorteo:** Parte-hartzaile guztien artean kultura-saski bat zozketatuko da.
 - Zozketaren emaitza emailaz jakinaraziko zaio irabazleari, eta sare sozialen bidez ere zabalduko da.
- **Hedapena:** Argazkien bitartez, argazki-erakusketa bat eginen dugu, eta hori online bisitatzen ahalko da www.pamplona.es/pamplonaesverde webgunean, behin argitaratuta.

Ekimen parte-hartzaile honetan parte hartzen dutenek Iruñeko Udalarari argazki horien erabilera lagatzen diotela onartu beharko dute, erakundeari eskubidea emanaz irudiak egoki kudeatu, gorde eta hedatze aldera behar diren berariazko tratamendu-irizpideak ezartzeko.

Halaber, argazkirik onenak gure sare sozialetan argitaratuko ditugu:

-  [ingurumenhezkuntza.museoa](https://www.facebook.com/ingurumenhezkuntza.museoa) // [irunakulturada](https://www.facebook.com/irunakulturada) // [VisitPamplona](https://www.facebook.com/VisitPamplona)
-  [IHMuseoa](https://twitter.com/IHMuseoa) // [irunakulturada](https://twitter.com/irunakulturada) // [VisitPamplona](https://twitter.com/VisitPamplona)
-  [Ingurumenhezkuntzairuna](https://www.instagram.com/ingurumenhezkuntzairuna) // [visit_pamplona](https://www.instagram.com/visit_pamplona)

ZINEMA ETA INGURUMENEO NAZIOARTEKO JAIALDIA



Maiatzaren 24an (astelehena), 25ean (asteartea), 26an (asteazkena),
27an (osteguna), 20.00etan.

TOKIA: Golem Baiona zinematokian

Sarrera librea, aldez aurretik gonbidapenak leihatilan hartuta.

Ecozine berriz ere Iruñean da, sentitzeko, hausnartzeko eta jarduteko gonbidapena. Zinema gizartea eraldatzeko arte gisa.

Ingurumeneko gaiak jorratzen dituzten lau saio dira, eta filmak egin dituzten taldeetako kideekin filmen inguruan hitz egiteko aukera izanen da.

Argibide gehiago hemen:

www.educacionambiental.pamplona.es

www.festivalecozine.es

PIRIBUS



Maiatzak 10 - 23

TOKIA: Basotxo

Pirinioak mendien artean gurutzatzen dira. Mendi bakoitzak, haran bakoitzak bere berezitasuna du, bere ondare aberastasuna, baina lurralde guzti hauek historia komun batek lotzen ditu. Pirinioen bihotzera egindako bidaia honetan, mendikate honetako DNA aurkitu, partekatu eta berregitera gonbidatzen zaituztegu bertan bizi direnekin eta bisitatzeko dituztenekin batera.

Erakusketak Pirinioen 4 alderdi nagusi aurkezten dizkigu: geologia, paisaia, biodibertsitatea eta giza alderdia. Horretarako, mendikate hori sakonean ikusteko eta ezagutzeko aukera ematen diguten hainbat modulu tekniko erabiltzen ditu.

Erakusketa osatzeko, jarduera osagarrien programa bat antolatu da, Nafarroako entitate eta pertsonekin. Horrela, Pirinioez gain, gure lurraldeko ingurumen-errealitatea ezagutuko dugu.

Argibide gehiago:

www.piribusnavarra.com

Jardueretan izena emateko:

piribuspamplona@gmail.com // 619 404 894

IRUÑEKO BIODIBERTSITATEA, ZER FAUNA ETA ZER FLORA BIZI DIRA ELKARREKIN GURE INGURUAN?



Maiatzak 11, 18.00.

TOKIA: Kondestable Civivoxa

Gaur egun, Iruña bezalako hiriak oso urbanizatuta daude, baina, hala ere, animalia eta landare asko bizi dira hiri-ingurunean ere. Lorategiak, parkeak, ibaiak eta beste ingurune batzuk hainbat espezieren babeslekuak dira, hala nola bisoi europarra, edertasun handiko orkideak, barboak, noktulo ertaina edo miru erreala.

Hitzaldian Iruñean dauden fauna eta floraren eta horiek mantentzeko udal-proiektuen errebasoa eginen dute.

Marina Jimenez Diez, Iruñeko Udaleko Tokiko Agenda 21eko zerbitzua

Argibide gehiago:

www.piribusnavarra.com

Aurrez izena eman ondokoetan: piribuspamplona@gmail.com // 619 404 894

SINADURA BAT ITSASO TXIKIAREN ALDE PROZESUEN ARGAZKIAK EGITEN



Estefanía, artista antolatzailea

Apirilak 13 - 30

Inaugurazioa: Apirilak 13, 18.30.

TOKIA: Ingurumen Hezkuntzako Museoa

SINADURA BAT ITSASO TXIKIAREN ALDE. PROZESUEN ARGAZKIAK EGITEN erakusketa Pedro Ortuñok komisariatu du, eta Murtziako Itsaso Txikiaren eskualdeko irudiak eta tokiko artisten edo arte ederretako ikasleen obra espezifikoak bildu eta erakusten ditu, xede hartuta Itsaso Txikiak jasaten duen paisaia-narriadurari elkartasuna adierazteko egindako argazki- eta bideo-agirien memoria biltzea.

Izen-ematea, aurrez, inauguraziorako

Martxoaren 29tik aitzina. 010 edo 948 42 01 00 (Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

AMA LURRAK BETI BIZITZA ISLADATZEN DU



Maiatzak 4 - ekainak 25

Inaugurazioa, kontzertu baten bidez: maiatzak 4, 18.30.

TOKIA: Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Erakusketak zuraren, enborren, landare prentsatuaren eta abarren kolore, testura, forma eta bolumenak uztartu eta fusionatzen ditu. Ama Lurrari egiten zaion omenaldia da. Sentsibiltatea, indarra, bizitza...

Koke Ardaiz, artistak zuhaitzak entzun eta enborrak artelan bihurtzen ditu.

Itziar Azpiroz, artista landareen edertasuna ez dadin zimeldu saiatzen da.

Izen-ematea, aurrez, inauguraziorako

Apirilaren 19tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

DIRURIK GABEKO TRUKE-AZOKA TXIKIA



Apirila (27-30), maiatza (18-21)

TOKIA: Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Osasun-egoeraren arabera baldintzatuta

Erostearen ordezkari bat eskaintzen da, berrerabilpena sustatuz. Horrela ingurumena zaintzen laguntzen da, lehengaiak eta energia aurrezten direlako. Azokan denetarik aurki daitezke: arropa, zapatak, beira-aleak, liburuak, jostailuak, etab. Partehartzaileek egoera onean dauden baina erabiltzen ez dituzten gauzak ekartzen dituzte, besteendako interesgarriak izanzen direlakoan. Aste bakoitzean lau gauza trukatu ditzakete gehienez ere, betiere antzeko balioa duten objektuengatik. Trukea Ingurumen Hezkuntzako Lantaldeak gainbegiratu du, era orekatuan eta ordenatuan egiten dela bermatzeko. Azokak pertsona-edukiera mugatua izan du eta ekarritako objektuak berrogeialdian egonen dira hurrengo hilabetera arte.

MUSEOA ZEUREGANATU

Museoak bozgorailu gisa jokatu nahi du eta elkarrekin, ikastetxeek eta kolektiboek egiten dituzten ingurumen- eta gizarte-proiektuak zabaltzeko. Horretarako, bertako instalazioak eta hedapen-bideak erabiltzeko aukera ematen du unean uneko ekimen, lan, erakusketa, hitzaldi eta abarretarako. Hitzaldi-aretoa, ikasgelak, bilera-gelak eta erakusketa-gunea ditugu.

museoeducacionambiental@pamplona.es

